

# Euskal Unibertsitatea-2021 Kongresua, ezinbesteko erreferentzia

---

2001eko irailaren 27 eta 28an, *Euskal Unibertsitatea-2021 Kongresua*, (Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea) burutu zen Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusien areto ederrean. Aditu gehienen arabera, kongresua historikoa izan zen eta erreferentzia bihurtu da euskal unibertsitatearen garapenaren bidean.

Bertan, 32 txosten eta komunikazio aurkeztu eta 120 kongresista egon ziren, euskarazko unibertsitatearen inguruan gogoeta egin, proposamenak aurkeztu, eta ondorioak onartzeko. Kongresista ia guztiak irakasle eta ikertzaileak izan ziren, zientziaren arlo guztietakoak gainera. Beraz, euskal komunitate unibertsitario eta zientifikoaren parte hartzea bikaina izan zen. Nazioarteko txostengileak ere etorri ziren, beren herrietako unibertsitate esperientziak adierazteko.

Antolatzailea *EIRE, Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarte* izan zen eta euskarazko unibertsitatearen garapen oso eta eutsigarria lortzeko bidean (*desarrollo completo y sostenible*) bi epe hartu ziren kontuan kongresuan: bost urte eta, batez ere, hogeitaz hamar urte. Horregatik ere kongresuaren izenburua.

EIRE, irabazi asmorik gabeko elkarte legala da eta bi helburu nagusi ditu: unibertsitatearen euskararen garapenaren alde jardutea, eta unibertsitateko euskal irakasleen artean komunikazioa areagotzea. Unibertsitateko edozein euskal irakasle izan daiteke EIREkide, ez herrialde, ez unibertsitate, ez bestelako bereizketarik gabe. Gaur egun berrehunetik gora dira EIREkideak.

Batzorde zientifikoa goi mailakoa izan zen eta unibertsitate desberdinetako Pedro Miguel Etxenike, Gotzon Garate eta Jerardo Elortza izan ziren kide. Euskal Herriko unibertsitate gehienak izan ziren babesle. Halaber, EAEko erakunde publikoek laguntza eta babes osoa eman zioten. Nafarroako gobernuak ere arrakasta opa izan zion.

Komunikabideek ere behar zuen garrantzia eman zioten kongresuari eta telebistaz, irrati eta prentsan 1.685.430 pertsonako *audientzia pilotura* heldu zen. Zehatzago aztertuz, 163.430 pertsonako audientzia espezializatuari heldu zitzaion informazioa, alegia, unibertsitateko kide eta euskalgintzako eragileez osatutako multzoari.

## **Onartutako ondorioak eta etorkizun proposamenak**

“Euskal Unibertsitatea-2021, Kongresuan” hurrengo ondorioak eta proposamenak onartu ziren.

## Ondorio orokorrak

1. *“Euskal unibertsitatea” euskarazko unibertsitate modura definitzen dugu eta euskaraz egiten den unibertsitate irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa eta egitura oro hartzen ditu bere baitan. Pentsabide horretatik, Euskal Herrian dauden unibertsitate guztietan egiten den euskarazko jarduera oro ere euskal unibertsitatearen zati da –irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa, eta egitura kontuan izanik–, eta osotara euskaraz den unibertsitate edo unibertsitate-gunea garatzen denean, hori ere Euskal unibertsitatearen zati litzateke. Guztien artean osatzen baitute “Euskal unibertsitatea”. Honela eginez, euskal unibertsitatearen aldeko jardun historikoan egon diren, eta dauden, bi lan ildo nagusiak elkarren osagarri bihurtzen dira.*

2. *Euskal unibertsitateak kalitatezko garapen oso eta eutsigarria lortu behar ditu eta, horretarako, euskaraz mintzatzen diren herrialde guztietako gizarte osoaren partaidetza ezinbestekoa da. Halaber, euskal unibertsitatearen garapena bermatuko duten unibertsitate lege propioak behar dira, Euskal Herriko erakunde publikoetan sortuak. Beraz, euskal unibertsitatearen garapena osoa izango da, euskal hizkuntza komunitatearen eta bere kideen unibertsitate beharrak kalitatez eta kantitatez egoki betetzen dituenean, eta garapena eutsigarria izango da, orainean bertan etorkizuneko izana modu egokian ahalbidetzen duen neurrian.*



Bilbo, 2001.09.28. *Euskal Unibertsitatea 2021 kongresuaren amaieraurreko ekitaldia. Juan Karlos Lopez-Mugartza, Miren Zubizarreta, Iñaki Zabaleta, Roldan Jimeno.*

3. *Euskal unibertsitateak Euskal Herri osoa du bere jardueraren barruti propio eta berezkoa, izan ere, euskara baita euskal unibertsitatearen barrutia, eta ondorioz, euskaraz berba egiten den herrialde guztietara hedatzen baita errealitatean euskal unibertsitatea. Horregatik, euskal unibertsitatearen garapen oso eta eutsigarria*

bideratzeko, ezinbestekoa da euskal barrutia erreferentzia pragmatikoa izatea unibertsitate jarduera orokorrean.

4. *Euskal unibertsitateak beharrezkoa du bere nortasun propioa unibertsitateko alderdi eta alor guztietan egituratzea, kalitatezko garapen oso eta eutsigarria lortzeko.* Beraz, funtsezkoak dira osotara euskaldun diren unibertsitate edo unibertsitate-guneak eraikitzea eta daudenak indartzea. Horretarako, oso baliagarriak dira Katalunia eta Flandesko unibertsitate esperientziak.

5. *Euskal unibertsitatea garatzen egin den eta egiten ari den bidean oso garrantzitsuak dira euskal ikasle eta irakasleen erabaki, adore eta lana.* Gainera, erakunde eta agintariei biziki laguntzen diete euskararen aldeko erabakiak hartzen.

### **Ondorioak gaurko egoeraren inguruan**

#### **Irakaskuntza**

6. *Euskal irakasleria, orokorrean, erdaraz diharduena baino lan egoera eskasagoetan ari da lanean* hainbat arrazoiengatik: euskal testuliburuen eskasia, hizkuntza egokitzen irakasleek egin beharreko ahalegin berezia, eta abar. Kopuruei dagokienez, 2000. urtean, Euskal Herriko unibertsitateetako irakasleria osoaren %20 inguru bakarrik da euskaraz irakasgai bat behintzat irakasten duena.

7. *Ikasle euskaldunen kopurua gora doa, nahiz eta demografia eta erdarazko ikasleak beherantz doazen.* Alabaina, euskarazko ikasketetan matrikulatzeko arazoak dituzte ikasle euskaldunek, bai sartzeko prozeduragatik –zerrenda bakarra unibertsitate publikoetan–, bai euskarazko titulazioen eskaintza murrizta delako eta, ondorioz, euskaraz matrikulatzea zalantzarik zailagoa. Kopuruei dagokienez, 2000. urtean, Euskal Herriko unibertsitateetako irakasleria osoaren %26 inguru bakarrik da euskaraz irakasgai bat behintzat hartzen duena.

8. *Euskarazko irakaskuntza 1. eta 2. zikloetan gora doa eten gabe eta UPV-EHU da erreferentzia nagusia kantitatearen aldetik,* euskarazko eskaintza osoaren %74 baitauka bere gain. Mondragon Unibertsitatea ere onerako nabarmentzen ari da. Beste alde batetik, Euskal Herriko unibertsitate guztiak kontuan hartuz, Giza eta Gizarte Zientzietako titulazioetan euskarazko eskaintza %42koa da, nahiko maila aipagarria; izan ere, erreferentzia kuantitatiboa den UPV-EHU aztertuz, ikusten dugu derrigorrezko eta hautazko kredituen %76 eskaintzen duela euskaraz giza eta gizarte zientzietan. Baina, egoera kezagarria da Teknika eta Teknologia Zientzietan eta Osasunaren Zientzietan, derrigorrezko eta hautazko kredituen %24 eta %13 bakarrik eskaintzen baitira euskaraz hurrenez hurren Euskal Herrian. Bi esparru hauetan UPV-EHUk ere nahiko eskaintza baxua dauka –%37 teknika eta teknologiaren zientzietan eta %20 osasunaren zientzietan–.

9. *Euskararen egoera kezagarria da Nafarroako unibertsitateetan eta, horregatik, errespetuz baina gogo osoz eskatzen diegu nafar agintariei ahalegin zintzoak egin ditzatela Nafarroako euskaldunei euskarazko ikasketak unibertsitatean duinki eskaintzen.*

#### **Ikerkuntza eta argitalpenak**

10. *Gaur egun, oraindik, oso zaila da doktore tesi bat euskaraz soilik egitea eta, batez ere, tesia euskaraz epaitua izateko, euskaldunetz osatutako epaimahaia eratzea.*

Egoera hau are zailagoa da teknika eta teknologiaren, osasunaren eta naturaren zientzietan. Azken honetan joera gero eta nabarmenagoa baita nazioarteko adituak epaimahaietara ekartzea.

11. *Oso ikerketa proiektu gutxi burutzen dira euskaraz eta, gainera, euskaldunetz osatutako ikerketa taldeak gutxi dira. Hala ere, ikerketa talde euskaldunek lan hizkuntza euskara eduki arren, ikerketa proiektuak beste hizkuntzetan eskatzea ere oso arrunta da.*

12. *Euskarazko unibertsitate liburuaren eskasia itzelezkoa da, eta oro har, unibertsitate irakasgaien %75 inguruk oraindik ez du oinarritzko testulibururik euskaraz.*

### **Etorkizunerako estrategiak eta proposamenak, 2006 eta 2021 urteetara begira**

Euskal unibertsitatearen etorkizun estrategiak eta proposamenak egiteko, gogoan izan behar dugu ohiko ikasle kopurua -18 eta 24 urte bitartekoa- nabarmenki jaitsiko dela 2021 urtera arte, eta agian ordutik aurrera hasiko dela zertxobait ugaltzen. Era berean, ikasle helduen igoera espero da. Etorkizuneko gizartean helduen presentzia areagotu egingo da unibertsitatean eta heldu horiei heziketa iraunkorrerako eta birziklatze profesionalerako sistema malgu eta baliagarria eskaini behar zaie.

Euskal unibertsitatea, beste hezkuntza sistemak bezala, informazio eta komunikazioaren teknologia berrietan oinarritu beharko da etorkizunean sartzeko, eta horrez gain, eskariaren etengabeko dibertsifikazioari erantzuteko gai izan beharko du, denbora berean aldaketarako malgutasuna erakutsiz. Beraz, horiek kontuan izanda, hona hemen euskal unibertsitaterako proposamenak eta estrategia nagusiak, 2006 eta 2021 urteetara begira.

#### **Irakaskuntza**

1. *2021 urterako, euskal ikasleen kopurua bikoiztu egingo da, eta 50.000 ikasle inguru izan daitezke, baldin eta hizkuntzaren hautaketan faktore berriak agertzen ez badira, eta hizkuntza-gaitasunaren bilakaera nolakoa den ikusita. Horrek esan nahi du, unibertsitate titulazio gehienetarako nahiko euskal ikasle izan daitekeela (110 titulazio inguru dira guztira orain). Bitartean, ikasle kopuruaren haziera eten gabekoa izatea espero da urterik urte.*

2. *Euskarazko irakaskuntzaren eskaintza -derrigorrezko eta hautazko kredituak-, 1. eta 2. zikloetan %45era goratu beharko litzateke 2006rako Euskal Herri osoko unibertsitate guztien artean (orain %34koa da). Horrek esan nahi du UPV-EHUK, kuantitatearen aldetik erreferentzia denez, %20 inguruan goratu beharko lukeela bere derrigorrezko eta hautazko kredituen eskaintza euskaraz hurrengo bost urteetan. Proposamen hau egingarria da, II Euskara Plana eta hartutako konpromisoak betetzen badira. Beste unibertsitateen ekarpena ere adierazgarria izan daiteke portzentajearen aldetik.*

3. *Teknika eta Teknologia Zientzietako 1. eta 2. zikloko titulazioetan, 2006 urtera begira, euskarazko eskaintza bikoiztu egin beharko litzateke eta %50era eramán (orain %24 da) Euskal Herriko unibertsitate guztien artean -derrigorrezko eta hautazko kredituak sartuz-. Hogei urte barru begiraturaz, hau da, 2.021 urtera, titulazio guztietan derrigorrezko ikasgai guztiak euskaraz eman beharko dira; eta jakintza arlo guztietan lau edo bost testuliburuk euskaraz idatzita egon beharko dute.*



Bilbo, 2001.09.28. Euskal Unibertsitatea 2021 kongresuaren amaiera ekitaldia. Angel Bidaurrazaga, Luis Mari Bandres, Gotzon Garate, Jerardo Elortza.

4. Osasunaren Zientzietako 1. eta 2. zikloko titulazioetan, 2006 urtera begira, euskarazko eskaintza %20ra igo beharko litzateke Euskal Herrian (orain %13 da). Horrek esan nahi du UPV-EHUK, alor honetan euskal erreferentzia bakarra denez, %20 inguruan goratu beharko lukeela bere derrigorrezko eta hautazko kredituen eskaintza euskaraz hurrengo bost urteetan. Proposamen hau egingarria da. Halaber, euskal testugintza indartu behar da jakintza arlo guztietan, eta UPV-EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen ondoan ospitale kliniko unibertsitario bat behar da, non euskarak presentzia osoa izango duen komunikazioan eta lan jardueran.

5. Giza eta Gizarte Zientzietako 1. eta 2. zikloko titulazioetan, 2006 urtera begira, euskarazko eskaintza %50era igo beharko litzateke (orain %42 da) Euskal Herriko unibertsitate guztien artean –derrigorrezko eta hautazko kredituetan–.

6. Naturaren Zientzietako 1. eta 2. zikloko titulazioetan, 2006 urtera begira, euskarazko eskaintza %55era igo beharko litzateke (orain %47 da) Euskal Herriko unibertsitate guztien artean –derrigorrezko eta hautazko kredituetan–.

7. Euskal lizentziatu berriei 3. zikloko kalitatezko doktoretza eta postgraduato titulazioak eskaini behar zaizkie euskaraz, eta programa baten behar edo diseinuarengatik beste hizkuntza batzuk ere erabili behar badira, euskarazko kredituen kopuruak esanguratsua izan behar du. Gainera, 3. zikloa sailen artean lankidetzatza garatzeko gunerik egokiena da, eta unibertsitate desberdinetako sail edo sailkide desberdinen artean programa on eta aurreratuak presta daitezke, informatika eta sareko teknologia berriak erabiliz. Izan ere, lizentziatu euskaldun gero eta gehiago dago eta 3. ziklorako euskal eskaria garatzen ari da, baina oraindik horri erantzuten hasi baino ez gara egin.

8. *“Euskal unibertsitate birtuala” sendotu eta egituratu egin behar da euskal gizartearen behar eta eskakizun berriei egoki erantzuteko: titulazioak, curriculum aurreratuak. Hemen ere, aurreko ondorio nagusietan esan dugun legez, elkarren arteko osagarritasuna eta elkarlana dira ardatz, Euskal Herri osoan barreiatuta dauden ikasleei erantzuteko. Honela, unibertsitate desberdinek –UEU barne– eskain ditzaketen ikasketa birtualak elkarren hornigarri izan behar dute, eta berdin gertatuko da unibertsitate osotara euskalduna egiten bada.*

#### **Ikerkuntza eta argitalpenak**

9. *Euskarazko unibertsitate liburuaren alorrean argitalpen politika eta plangintza bereziak prestatu eta gauzatu behar dira eta euskal irakasleei laguntza berezi eta berezkoak eman behar zaizkie testuliburuak idazteko. Halaber, komenigarria da, unibertsitate desberdinetako euskal irakasleen artean liburuak idazteko, harreman eta jokabide berriak indarrean jartzea. EIRE komunikazio sare egokia izan daiteke horretarako. Jakintza arlo gehienetan testuliburuaren beharra handia bada ere, teknika eta teknologiaren eta osasunaren titulazioetan da bereziki larria.*

10. *Unibertsitate desberdinetako irakasle euskaldunen arteko ikerketa taldeak osatu behar dira, euskarazko ikerkuntza kalitatez garatzeko eta euskal komunitate zientifikoa sendotzeko, jakintza arlo desberdinen arteko sinergia bultzatuz.*

*Iñaki Zabaleta Urkiola*